17.3.– Tasas. Los aspirantes que participen por este procedimiento pagarán la tasa según lo previsto en la base 3.2 de esta convocatoria.

18.– Lista de admitidos y excluidos.

La publicación de las listas provisionales y definitivas de admitidos y excluidos se ajustará a lo dispuesto en la base 4 de la presente Orden de convocatoria.

19.– Órganos de selección.

Los órganos de selección para este procedimiento serán los mismos a que se refiere la base 5 de la presente Orden de convocatoria y ejercerán respecto de este procedimiento las mismas funciones que se enumeran en el mencionado apartado.

20.– Comienzo y desarrollo de las pruebas.

El comienzo y desarrollo de las pruebas se realizará de conformidad con lo dispuesto en la base 7 de la presente Orden de convocatoria.

21.– Sistema de selección.

La prueba, en la que se atenderá tanto a los conocimientos de la persona aspirante sobre la materia como a sus recursos didácticos y pedagógicos, consistirá en la exposición oral de un tema de la especialidad de Lengua y Literatura Vasca del Cuerpo de

du, deialdi honen IV. eranskinak erreferentzia hartzen duen aipatutako espezialitateetik epaimahaiak ausaz aukeratutako bost gaitatik izangaiak aukeratuta. Azalpena gaiaren planteamendu didaktiko batez osatuko da, izangai bakoitzak libre hautatutako ziklo edo ikastaro jakin bati buruzkoa.

Izangai bakoitzak bi ordu izango ditu prestatzeko, eta egokitzen jotzen duen material osagarria erabili ahal izango du (berak ekarri beharko du), bai eta Epaimahaiari bere interbentzioa amaitzean emango dion gidoi bat ere. Epaimahaiari emango dio gidoia azalpena bukatzean. Berrogeita bost minutu iraungo du gehienez azalpenak, eta, amaitu ostean, epaimahaiak galderak edo jarduerak egin ahal izango dizkio, azalpenaren edukari lotuta. Eztabaidak hamabost minutu iraungo du gehienez.

Proba euskaraz egingo da osoki.

22.– Kalifikazioa.

22.1.– Epaimahaiak aurreko oinarriak erreferentzia hartzen duen probari «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango dio, eta espezialitate berria «gai» kalifikaziodun izangaiek eskuratuko dute soilik.

22.2.– Hautaketa-organoek «gai» kalifikaziodun pertsona izangaien zerrenda bidaliko diote Langileriaren Kudeaketarako zuzendariari. Lortutako kalifikazioak Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenaren bidez jakinaraziko dira Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren interneteko helbidean (<http://www.irakasle.net> edo <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>).

Ebazpen horren aurka –prozedura ez da ebazpen horrekin amaitzen–, ez dago errekurtsioa jartzerik, eta interesa duten pertsonak deialdi honen 22.3 oinarrian aurreikusten den amaierako ebazpenaren aurkako gorako errekurtsioa jarri ahal izango dute.

22.3.– Deialdia egiten duen organoak «gai» kalifikazioa lortu duten izangaiek deialdi honetako 16. oinarrian eskatutako baldintzak biltzen dituztela egiatzatu ondoren, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak jakinarazi egingo ditu izangaiak «gai» deklaratzeko ebazpenaren bidez, eta bertan adierazi ere lortutako espezialitate berria zein den.

Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren webgunean (<http://www.irakasle.net> edo <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>).

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean,

Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, elegido por aquella de entre cinco elegidos al azar por el Tribunal, de los correspondientes al temario de la citada especialidad a que se refiere el anexo IV de esta convocatoria. La exposición se completará con un planteamiento didáctico del tema, referido a un determinado ciclo o curso elegido libremente por cada aspirante.

Cada aspirante dispondrá de un tiempo de preparación de dos horas y podrá utilizar el material auxiliar que considere oportuno y que deberá aportar ella misma, así como un guión que entregará al Tribunal al término de su intervención. La exposición tendrá una extensión máxima de cuarenta y cinco minutos y una vez haya finalizado, el Tribunal podrá plantear preguntas o actuaciones en relación con su contenido, no pudiendo exceder este debate de quince minutos.

La prueba se realizará íntegramente en euskera.

22.– Calificación:

22.1.– Los Tribunales calificarán la prueba a que se refiere la base anterior de «apto» o «no apto», y obtendrán la nueva especialidad únicamente los aspirantes calificados con «apto».

22.2.– Los órganos de selección remitirán la lista de personas aspirantes calificadas con «apto» al Director de Gestión de Personal. Mediante resolución del citado Director de Gestión de Personal se harán públicas en los Tablones de anuncios de las respectivas Delegaciones Territoriales de Educación así como en la dirección de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (<http://www.irakasle.net> o <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>), las calificaciones obtenidas.

Contra dicha resolución, que no pone fin al procedimiento, no cabrá recurso, debiendo las personas interesadas interponer, en su caso, el correspondiente recurso de alzada contra la resolución final prevista en la base 22.3 de la presente convocatoria.

22.3.– Una vez comprobado por el órgano convocante que los aspirantes que han obtenido la calificación de «apto» reúnen los requisitos exigidos en la base 16 de esta convocatoria, el Director de Gestión de Personal las hará públicas mediante resolución por la que se declara «apto» a los aspirantes con indicación de la nueva especialidad adquirida.

Dicha resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, en los Tablones de Anuncios de las Delegaciones Territoriales de Educación y en la página web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (<http://www.irakasle.net> o <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>).

Contra dicha resolución, las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en

hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

22.4.– Prozedura honen bidez, espezialitate berria bat eskuratzen dutenak praktika-fasetik salbuetsita geratuko dira.

22.5.– Espezialitate berria bat lortzeak ez du esan nahi ordu arteko aurrekoa edo aurrekoak galtzen d(ir) enik. Espezialitate bat baino gehiago hartua dutenek horietako bakoitzari dagozkion lanpostuetara sartu ahal izango dira irakaskuntzako funtzionarioen lanpostuak betetzeko ezarritako mekanismoen bidez.

DATU PERTSONALEN TRATAERA

23.– Interesatuak ematen dituen datuak, bakar-bakarrik erabiliko dira dagokion prozesuan edo egin-tzan aurreikusitako helburuetarako.

Datu horiek ez dira erabiliko, inolaz ere, tratamen-durako edo hirugarren bati lagatzeko, doakionaren zalantzarik gabeko baimenarekin edo Datu Pertsona-len Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 6.2 eta 11.2 artikuluetan (1999ko abenduaren 14ko 298.zenbakiko EAOa) ezarritakoari jarraituz ez bada.

Aipatutako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, datu-lagatzailleak edozein momentutan izango ditu sarbide-, zuzenketa-, ezeztapen- eta aurkaritza-eskubideak, arauz ezartzen denari jarraituz.

Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua Da-tu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen aurreikuspenera egokitu beharko da.

el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

22.4.– Quienes adquieran una nueva especialidad por este procedimiento, estarán exentos de la fase de prácticas.

22.5.– La adquisición de una nueva especialidad no supone la pérdida de la anterior o anteriores que se pudieran poseer. Quienes tengan adquirida más de una especialidad podrán acceder a plazas correspondientes a cualquiera de ellas a través de los mecanismos establecidos para la provisión de puestos de trabajos de los funcionarios docentes.

TRATAMIENTO DE LOS DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.

23.– Los datos aportados por las personas participantes se utilizarán, con carácter único y exclusivo, para los fines previstos en el procedimiento o actuación que se trate.

En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceros, si no es con el consentimiento inequívoco del afectado, o en los supuestos previstos en los artículos 6.2 y 11.2 de la Ley 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (BOE n.º 298, de 14 de diciembre de 1999).

En cumplimiento de lo dispuesto en la citada Ley Orgánica 15/1999, la persona cedente de los datos podrá, en cualquier momento, ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la forma que reglamentariamente se determine.

El uso y funcionamiento de este fichero se ajustará a las previsiones de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

I. ERANSKINA

SARBIDE LIBREKO TXANDARAKO ETA EZINDUEI ERRESERBATURIKO TXANDARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte egindako merezimenduak bakarrik barematuko dira.

Izangaiak ezin izango dute merezimenduen balorazioagatik 10 puntu baino gehiago lortu.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
I.– ALDEZ AURREKO IRAKASLE-ESPERIENTZIA (gehienez, 7,000 puntu)		
I.1.– Izangaiak zer kidego nahi duen, kidego horretako espezialitateetako irakaskuntzan ikastetxe publikoetan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0583 puntu gehituko dira.	0,700	Zerbitzu orria, zerbitzuak eman diren hezkuntza-administrazioako dagokion organoak sinatua, ondokoak jasoko dituen: lanpostuaz jabetzeko eta uzteko eguna, kidegoa eta espezialitatea. Halakorik ezean, izendapena egiaztatzeke agiriak edo horien fotokopia konpultsatuak, ondokoak jasoko dituztenak: lanpostuaz jabetzeko eta uzteko eguna, kidegoa eta espezialitatea. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat egin diren zerbitzuak ez dira kreditatu beharko, ofizioz baloratuko baitira.
I.2.– Izangaiak nahi duen kidegoaz bestelakoetako espezialitateetako irakaskuntzan ikastetxe publikoetan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0292 puntu gehituko dira.	0,350	
I.3.– Izangaiak aukeratutako kidegoaren maila akademiko bereko irakaskuntza arautuei dagozkien espezialitateetako irakaskuntzan bestelako ikastetxeetan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0125 puntu gehituko dira.	0,150	Ikastetxeko zuzendariaren egiaztageria, dagokion Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuak ontzat emanda. Egiaztageri horrek ondoko datuak jasoko ditu derrigorrez: zerbitzuen hasiera- eta bukaera-egun zehatzak, hezkuntza-maila eta espezialitatea, baimendutako irakaskuntza arautuei dagokiena. Horrekin batera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak (GSDO) emandako ziurtagiria, ikastetxearen izena (enpresa) eta alta-aldiak jasoko dituen.
I.4.– Izangaiak aukeratutako kidegoak ematen duen hezkuntza-mailaz besteko irakaskuntza arautuei dagozkien espezialitateetako irakaskuntzan bestelako ikastetxeetan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0083 puntu gehituko dira.	0,100	

Oharrak:

I.a.– Emandako zerbitzuak aurreko azpiataletako baten barruan baino ez dira baloratuko, eta puntuazioak ezin izango dira pilatu edo metatu zerbitzuak ikastetxe batean baino gehiagotan aldi berean eman badira.

I.b.– I.1 eta I.2 azpiatalen ondorioetarako, Hezkuntza Administrazioek sortu eta sustengatutako ikastetxeen sare publikoan integratuta daudenak jotzen dira ikastetxe publikotzat, eta ez Udalen, Foru Aldundien edo zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen menpe daudenak.

I.c.– Irakaskuntzako esperientzia-urtetzat hartuko da ikasturte osorako etenik gabeko izendapena edo, bestela, ikasturte berean betetako zerbitzu-aldiak bederatzi hilabetekoak edo gehiagokoak badira.

Hil osokotzat hartuko dira hogeita hamar eguneko zerbitzuak, jarraituak izan zein ez.

I.d.– Atzerrian emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagozkien herrialdeetako hezkuntza-administrazioek edo eskumen-organismoek emandako ziurtagiriak erabiliko dira, eta ziurtagiri horiek ondokoak jasoko dituzte: zerbitzu-aldiaren iraupena, ikastetxea publikoa edo pribatua den, emandako hezkuntza-maila eta irakasgaia. Ziurtagiri horiek zinpeko itzulpen eta guzti aurkeztuko dira.

I.e.– Maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006ko Legean araututako kidegoei ematea dagokien irakaskuntzetan emandako zerbitzuak baino ez dira baloratuko.

I.f.– Gaur abian ez dauden ikastetxeen kasuan, esperientzia hurrengo dokumentuak aurkeztuz justifikatu ahal izango da: interesatuaren zinpeko aitorpena, lan-kontratua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak (GSDO) emandako ziurtagiriaren bitartez (ikastetxearen izena –enpresa- eta alta-aldiak jasoko dituen) dagokion Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren oniritziarekin.

I.g.– Zerbitzuak eman direneko Kidegoa edo hezkuntza-maila akreditatzen ez denean, bilatzen den Kidegoaz edo hezkuntza-mailaz bestelako batean eman direla ulertuko da.

I.h.– Musika Eskolan emandako zerbitzuak akreditatzen duten ziurtagirietan, irakaskuntza arautuetan emandako zerbitzuak direla adierazi behar da espresuki.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
II.– PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA (Gehienez, 4,000 puntu)		
II.1.– Eskatu eta kidegoan sartzeko alegatu den tituluari dagokion espediente akademikoa, baldin eta alegatutako titulua bat badator, oro har, kidegoan sartzeko eskatzen den titulazio-mailarekin (Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto, A-1 azpitaldeko irakasle-kidegoetarako; edo Unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko, A-2 azpitaldeko irakasle-kidegoetarako) Espediente akademikoaren batez besteko nota honela baloratuko da: – 6ra arte. – 6,01etik 7,50era arte. – 7,51tik 10era arte.	1,000 1,250 1,500	Titulazioan lortutako batez besteko nota adierazten duen ziurtagiri akademiko pertsonal originala edo haren fotokopia konpultsatua. Bestela, alegatutako titulua lortzeko behar diren ikasgai eta ikastaro guztietan lortutako puntuazioak akreditatu behar ditu.
II.2.– Graduatu ondokoak, Doktoregoa eta aparteko sariak: II.2.1.– Ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), Master Titulu Ofiziala (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua eta urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua), ikerketarako nahikotasuna edo baliokidea den beste edozein agiri izateagatik, baldin eta ez badira irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bete beharreko baldintza. II.2.2.– Doktore titulua izateagatik. II.2.3.– Doktoregoan aparteko titulua ateratzeagatik.	1,000 1,000 0,500	Dagokion ziurtagiriaren edo tituluaren fotokopia konpultsatua, edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Doktore tituluaren ziurtagiri akademikoa edo fotokopia konpultsatua edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa). Hori ziurtatzeko agiria.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
II.– PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA (Gehienez, 4,000 puntu)		
II.3.– Beste unibertsitate-titulazio ofizial batzuk (irakasle-funtzio publikoan sartzeko baldintza moduan ez badira alegatu). II.3.1.– Lehen zikloko titulazioak: Diplomatura, Ingeniaritza Tekniko, Arkitektura Tekniko edo legez horien baliokidetzat jotako titulu bakoitzeko, eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritzaren baten lehen zikloari dagozkion ikasketengatik. Maisu-maistren kidegorako izangaien kasuan, ez da baloratuko idatz-zati honetan izangaiak aurkeztuko duen lehenengo titulua edo ezaugarri horiek dituzten ikasketak. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialen eta Musika eta Arte Eszenikoen kidegorako izangaien kasuan, ez dira idatz-zati honen bidez baloratuko inondik ere izangaiak lehenengo lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua lortzeko gainditu behar izan dituen ezaugarri horietako titulu edo ikasketarik. II.3.2.– Bigarren zikloko titulazioak: Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturaren bigarren zikloari dagozkion ikasketengatik, edo legez, ondorio guztietarako, horien baliokidetzat jotako titulu bakoitzeko. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialen eta Musika eta Arte Eszenikoen kidegorako izangaien kasuan, ez dira atal honen bidez baloratuko inondik ere izangaiak lehenengo lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua lortzeko gainditu behar izan dituen (lehenengo zikloa, bigarren zikloa edo, dagokionean, heziketa osagarriak) titulu edo ikasketarik.	1,000 1,000	Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren eta meritu moduan aurkeztutako en foto-kopia konpultsatua edo, dagokionean, emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa). Halaber, adierazitako titulu bakoitzaren ziurtagiri akademiko pertsonala gehitu behar da. Lehenengo zikloari dagozkion ikasketen kasuan, lehenengo hiru ikasturteetako ikasgai guztiak gainditu izana akreditatzen duen ziurtagiri akademikoa eman behar da. Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren eta meritu moduan aurkeztutako en foto-kopia konpultsatua edo, dagokionean, emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa).

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
II.- PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA (Gehienez, 4,000 puntu)		
II.4.- Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren titulazioak: Hizkuntza Eskola Ofizialek, Musika Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko irakaskuntzen titulazioak, baita Berariazko Lanbide Heziketarenak ere, irakaskuntzako funtzio publikora sartzeko baldintza gisa alegatu ez badira edo alegatutako titulua eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira, jarraian esaten den eran baloratuko dira: a) Musika- edo dantza-titulu profesionaleko. b) HEOKo maila aurreratuaren ziurtagiriko edo horren baliokideko. c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Teknikari tituluko. d) Lanbide Heziketako Goi Teknikari tituluko. e) Goi-mailako Kirol Teknikari tituluko.	0,500 0,500 0,200 0,200 0,200	Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren eta meritu moduan aurkeztutakoen fotokopia konpultsatua edo, dagokionean, emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa).

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
II.- PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA (Gehienez, 4,000 puntu)		
II.5.- Etengabeko prestakuntza: Gaingidutako etengabeko ikaskuntza eta hobekuntza-ikastaro bakoitzeko, aukeratzen den espezialitateari edo eskola-antolamenduari lotutakoak, edota hezkuntzari aplikatutako teknologia berriei, didaktikari, psikopedagogiari edo hezkuntzaren soziologiari lotutakoak, eta hezkuntzaren arloan erabateko eskuduntzak dituzten administrazio publikoek edo unibertsitateek deitutakoak; etengabeko prestakuntza-planaren sartuta dauden jarduerak, hezkuntza-administrazioekin lankidetzan jarduten duten erakundeek antolatutako, edo dagokion hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduerak: a) Ez 3 kreditu baino gutxiagokoa. b) Ez 10 kreditu baino gutxiagokoa. Bigarren Hezkuntzako kidegoko Musika espezialiterako eta Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoko espezialitateetarako soilik, era berean baloratuko dira musika-kontserbatorioek antolatutako ikastaroak. (*) Azpiatal honen ondorioetarako, bi kreditu baino gutxiagokoak ez diren ikastaroak gehitu daitezke, atal honetan finkatzen diren eskakizunak betetzen badituzte. Horretarako, aipatutako metatzea gutxienez bi kredituko eta hiru baino gutxiagokoak diren ikastaroak gehituta egingo da, eta metatze horren emaitza dagokion azpiatalera eramango da.	0,2000 0,5000	Dagokion organismoak edo ikastetxeak emandako ziurtagiria, kredituen edo ikastaroak irauteen duen ordu kopurua berariaz jasotzen duena. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da atal honetan puntuaziorik lortuko. Etengabeko prestakuntza-planaren barruan dauden edo hezkuntza-administrazioak onetsita dauden jardueren dagokienez, berariaz jaso behar da jarduerak aipatutako planaren barruan daudela edo hezkuntza-administrazioak onetsita daudela. Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako ikastaroak ofizioz zenbatuko dira, baita Sail horren etengabeko prestakuntzako planaren bildutako edo berak aitortutako jarduerak, salbu eta Eima eta Nolegaren jarduerak; azken hauetan, interesatuak alegatu edo ziurtatu behar du jarduera horiek egin dituela.

Oharrak:

II.a.- Hurrengo arauak aplikatuko dira, batez besteko nota kalkulatzeko:

1.- Espedientearen batez besteko nota agertzen duten ziurtagiri akademikoen kasuan, nota hori hartuko da kasu guztietan. Espedientearen batez besteko notarik agertzen ez bada, ordea, batez besteko puntuak kalkulatu dira irakasgai bakoitza zenbakitan adierazita badago. Baina «hitzez» adierazten bada, honako baliokidetzak ezarri lortuko da batez bestekoa:

Nahikoa, Baliozkotua, Gai:5 puntu
 Ongi:6 puntu
 Oso ongi:7 puntu
 Bikain:9 puntu
 Ohorezko matrikula:.....10 puntu

2.- Irakasgaiaren arabera antolatutako ikasketa-planen kasuan, honela kalkulatu da batez besteko nota: irakasgai bakoitzean lortutako noten batura zati egindako irakasgaien kopurua.

Kredituen arabera egituratutako ikasketa-planen kasuan, irakasgai bakoitzari aurreko baremoa aplikatzetik ateratzen den puntuazioa haztatu edo ponderatu egingo da, irakasgaiak duen kreditu-kopuruaren arabera, hurrengo formularen arabera:

$$V = \frac{P \times N_{Ca}}{N_{Ct}}$$

V = irakasgai bakoitzean ateratako notaren ponderaziotik datorren balioa.

P = irakasgai bakoitzaren puntuazioa, lehenago aipatutako baremoaren arabera.

N_{Ca} = irakasgaia osatzen duten kredituen kopurua.

N_{Ct} = ikasketetan egindako eta kalifikatutako kreditu kopurua.

Formula hori aplikatzetik ateratzen diren balioak batu egingo dira, eta emaitza hori izango da batez besteko azken nota.

3.– Espediente akademikoan hitzezko eta zenbakizko kalifikazioa agertzen baldin badira, zenbakizkoa baino ez da aintzat hartuko. Titulazioa egokitze-kurtsoaren bidez lortu bada, kurtso horretako kalifikazioak ere hartuko dira kontuan.

Onartutako irakasgai eta kredituak, kalifikaziorik ez badute, ez dira espedientean sartuko.

Ikasketa-planean integratuta ez dauden prestakuntza-jardueri dagozkien kredituen onarpenaren bidez lortutako kredituak ez dira zenbakiz kalifikatuko eta ez dira kontatuko espediente akademikoaren batez bestekoa egiteko.

4.– Bakoitzaren ikasketen ziurtagiria igortzen ez den kasuetan eta, haren ordeiz, tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria aurkezten denean, 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (13ko EAOa), izangaiak batez besteko notan «nahikoa» lortu zuela iritziko zaio.

5.– Atzerriko titulu homologatuei ere aplikatuko zaizkie irizpideok, eta horien ziurtagiri akademikoa zinpeko itzulpen eta guzti aurkeztu beharko da.

II.b.– Sartzeko alegatutakoa ez bezalakoa den bigarren zikloko titulu bat aurkezten bada, bigarren zikloko titulazioari dagokion puntuazioa soilik onartuko da II.3.2 atalean. Ikasketa horren lehen zikloari dagokion ziurtagiri akademikoa aurkezten bada, ikasketa-planeko irakasgai guztiak gainditu direla adierazten duena, II.3.1 atalean dagokion puntuazioa baloratuko da (aipatutako ataletan adierazi diren salbuespenen kalterik gabe).

II.c.– Titulazioak atzerrian eskuratu baldin badira, dagokion homologazioa erantsi beharko da ere bai, urtarrilaren 16ko 89/1987 eta urtarrilaren 29ko 104/1988 Errege Dekretuek ezarritakoarekin bat etorritik, edo, bestela, aintzatespena, 89/48/CEE Zuzentarauak eta urriaren 25eko 1665/1991 Errege Dekretuak ezarritakoaren babesean, aplikatzeak diren neurrian.

II.d.– II.4.b) atalean aipatutako merezimendua baloratzeko orduan, irailaren 2ko 967/1988 Errege Dekretuak arautzen dituen irakaskuntzen, uztailaren 18ko 944/2003 Errege Dekretuak arautzen dituenen eta abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak (2007ko urtarrilaren 4ko EAO) aipatzen dituen irakaskuntzen arteko baliokidetasunak hartuko dira kontuan, baita otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak (2009ko martxoaren 12ko EHAA), araubide bereziko hizkuntzetako irakaskuntzak Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko prozesua arautzen duenak eta irakaskuntza horien oinarritzko mailaren, erdi mailaren, maila aurreratuaren eta gaitasun mailaren curriculuma zehazten duenak, xedatzen duena ere.

II.e.– Titulu akademiko, Masterra, doktoretza edo gradu ondoko beste titulazio bat lortzea helburu duten ikastaro edo irakasgai horiek ez dira II.5 atalean inoiz ere baloratuko. Halaber, Espezializazio Didaktikoaren titulua edo Irakasteko Gaitasun Ziurtagiria lortzea helburu duten ikastaro edo jarduerak ez dira ere baloratuko.

II.f.– Egiaztatu ahal diren eta urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuak edo urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak arautzen ez dituzten beste masterrak II.5 azpiatalean baloratu ahal izango dira.

II.g.– II.5 atalaren balorazioaren ondorioetarako, kontuan hartu beharko da kredituen eta orduen arteko baliokidetasuna, 1992ko azaroaren 26ko Aginduak jasotzen duen bezala; agindu horren bidez, irakasleen etengabeko prestakuntzako jardueren deialdia, onarpena, egiaztatzea eta erregistroa erregulatzen dira, eta ikerketa-jardueren eta unibertsitateko tituluen baliokidetzak ezartzen da. (1992ko abenduaren 10eko EAOa).

Haren hamargarren artikuluan adierazten den bezala, «Etengabeko prestakuntzako jardueren balorazioa prestakuntza-kredituetan adieraziko da, irizpide hauei jarraiki:

1.– Ikastaro eta mintegien kasuan, prestakuntza-kreditu bat prestakuntzan egindako lan errearen zortzi orduren baliokidea izango da, gutxienez, eta hamabiren baliokidea, gehienez (...).

2.– Ikastaro eta mintegiei dagozkien kreditu-kopurua haiek garatzeko eta gainditzeko behar den denbora kalkulatu finkatuko da, ondoko taulari jarraiki:

Lan-orduak:

Zortzitik hamabi ordura. Kredituak: 1.
Hamahirutik hamazazpi ordura. Kredituak: 1,5.
Hemezortzitik hogeita bi ordura. Kredituak: 2.
Hogeita hirutik hogeita zazpi ordura. Kredituak: 2,5.
Hogeita zortzitik hogeita hamabi ordura. Kredituak: 3.
Eta modu berean kalkulatu hortik aurrerakoak».

II.h.– II.5 atalean, ez dira sartzen berriztapen-proiektuak eta, beraz, ez da zilegi horiek baloratzea

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– BESTE MEREZIMENDU BATZUK (Gehienez, 2,000 puntu)		
III.1.– Izaera didaktiko edo zientifikoko argitalpenengatik, baldin eta nahi den espezialitatearekin zerikusirik badute. Egilearengatik. Egilekide edo egile-taldearengatik. Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuak xedatutakoari jarraiki, ISBN zenbakia behar duten eta hura ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, ezta egilea argitaratzailea den argitalpenak ere.	0,5000 0,2500	Argitalpenetako aleak. Euskarri berezietan argitaratutako materialei dagokienez, hala nola, bideoak, CD-ROM, etab., argitalpen horiekin batera joan daitezkeen dokumentu inprimatuak aurkeztu beharko dira (karatulak, helburuak eta edukiak azaltzen dituzten liburuxkak, inprimaketak, etab.). Formatu elektronikoan besterik ematen ez diren argitalpenen kasuan, txosten ofiziala aurkeztuko da, eta bertan organismo jaulkitzaileak ziurtatuko du argitalpena datu-base bibliografikoan azaltzen dela. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, aldizkaria, liburukia, urtea eta hasierako eta bukaerako orria.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– BESTE MEREZIMENDU BATZUK (Gehienez, 2,000 puntu)		
III.2.– Gorputz Hezkuntzako espezialitaterako soilik. Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera, «Goi mailako kirolari» kalifikazioa izateagatik.	0,4000	Eskumena duen organismoaren ziurtagiria, «Goi mailako kirolari» kalifikazioa berariaz jasotzen duena.
III.3.– Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen kidegoko espezialitatearako merezimendu artistikoak. III.3.1.– INSTRUMENTU ESPEZIALITATEAK: 1.– Estatuko edo nazioarteko kontzertu-aretoetan, edota zikloetan jotako kontzertu bakoitzeko (1 puntu, gehienez): – Bakarlaria. – Talde bateko musikaria. 2.– Beste kontzertu batzuk (0,25 puntu gehienez): – Bakarlaria – Talde bateko musikaria 3.– Orkestra edo banda batean emandako urte bakoitzeko. (0,50 puntu gehienez). 4.– Jotzaile aritutako grabazio bakoitzeko (0,50 puntu gehienez): – Bakarlaria. – Talde bateko musikaria. – Orkestra edota bandarekin batera. 5.– Estatuko edota nazioarteko sariak: (0,50 puntu gehienez): Sari bakoitzeko. III.3.2.– ORKESTRA: 1.– Orkestra-/banda-zuzendari lanetan, nazioarteko edota estatuko kontzertu-areto edota zikloetan (puntu 1 gehienez): – Kontzertu bakoitzeko. 2.– Beste kontzertu bakoitzeko (0,25 puntu gehienez). 3.– Zuzendari-lanetan egindako grabazioak (0,50 puntu gehienez): – Grabatutako lan bakoitzeko. 4.– Estatuko edota nazioarteko sariak. (0,5 puntu gehienez): Sari bakoitza.	0,2000 0,0500 0,0500 0,0150 0,2000 0,2000 0,0500 0,0500 0,2000 0,2000 0,0500 0,2000 0,2000	Egitarauak, aleak, kritikak, argitalpenak, etab. Atzerriko hizkuntzako dokumentazioa bada, zinpeko interpretari baten itzulpena izan behar du erantsita.

III.3.3.– Espezialitatea: KONPOSIZIO OINARRIAK:		
1.– Ondutako lan propio bakoitzeko (1 puntu gehienez): Estreinatutako lan bakoitzeko.	0,2000	
2.– Musikagile-lanetan egindako grabazio bakoitzeko (0,5 puntu gehienez): – Grabatutako lan bakoitzeko	0,2000	
3.– Estatuko edota nazioarteko sariak (0,5 puntu gehienez): sari bakoitza.	0,2000	
III.3.4.– KANTUA:		
1.– Estatuko edo nazioarteko kontzertu-aretoetan edota zikloetan egindako kontzertu bakoitzeko (1 puntu gehienez): – Bakarlaria.	0,2000	
– Abesbatzan.	0,0500	
2.– Beste kontzertu batzuk (0,25 puntu gehienez): – Bakarlaria.	0,0500	
– Abesbatzan.	0,0150	
3.– Abesbatzan emandako urte bakoitzeko (0,50 puntu gehienez)	0,2000	
4.– Jotzaile aritutako grabazio bakoitzeko (0,50 puntu gehienez): – Bakarlaria.	0,2000	
– Abesbatzan.	0,0500	
5.– Estatuko edo nazioarteko sariak (0,50 puntu gehienez): bakoitza.	0,2000	
III.3.5.– MUSIKA HIZKUNTZA:		
1.– Estatuko edota nazioarteko kontzertu-areto edota zikloetan musikari laguntzaile- edo zuzendari-lanetan emandako kontzertu bakoitzeko (1 puntu gehienez).	0,2000	
2.– Beste kontzertu batzuk (gehienez 0,25 puntu): Bakoitza	0,0500	
3.– Ondutako lan propio bakoitzeko (1 puntu gehienez): Estreinatutako lan bakoitzeko.	0,2000	
4.– Estatuko edo nazioarteko sariak (0,5 puntu gehienez): bakoitza.	0,2000	

II. ERANSKINA

IRAKASLE FUNTZIONARIOEN KIDEGOEN ARTEKO SARBIDE-TXANDETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte egindako merezimenduak baino ez dira barematuko.

Hautagaiek ezin izango dute 10 puntu baino gehiago lortu beren merezimenduen balorazioarengatik.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
I.– EGINDAKO LANA (Gehienez: 5,500 puntu)		
I.1.– ANTZINATASUNA (Gehienez: 4,0000 puntu) Sarbidea zer kidegotik abiatu nahi den, kidego horretan karrerako funtzionario gisa emandako urte bakoitzeko. Hilabete/urte zati bakoitzeko 0,0416 puntu gehituko dira.	0,500	Zerbitzuak eman diren hezkuntza-administrazioko organo eskumendunak ziurtatutako zerbitzu-orria. Orriak ondokoak jasoko ditu: kargua hartu eta utzitako datak, kidegoa eta espezialitatea. Hura izan ezean, izendapenaren egiaztagiria edo egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, ondokoa jasotzen duena: kargua hartu eta utzitako data, kidegoa eta espezialitatea. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat egin diren zerbitzuak ez dira kreditatu beharko, ofizioz baloratuko baitira.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
I.– EGINDAKO LANA (Gehienez: 5,500 puntu)		
I.2.– BERARIAZKO FUNTZIOAK BETETZEA, ETA EBA-LUAZIOA (Gehienez: 2,5000 puntu)		Eskuduntzak dituen hezkuntza-administrazioak emandako zerbitzu-orria, jabetze eta kargu-uzteen izapideekin edo, izendapenaren kopia konpultsatua, jabetze eta kargu-uzteen izapideekin edo, hala badagokio, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela jasotzen duen egiaztageria.
I.2.1.– a) Ikastetxe publiko bateko edo laguntza-zerbitzuetako ikastetxe bateko zuzendari lanetan emandako urte bakoitzeko.	0,200	
b) Lanbide Heziketako ikasketaburu, idazkari, zuzendariorde, idazkariorde, saileko irakasle ordezkari, edo Batxilergoko luza-penetan edo Bigarren Hezkuntzako ataletan ikasketaburu aritutako urte bakoitzeko. Horiek guztiak ikastetxe publikoei dagozkie.	0,150	
c) Ikastetxe publiko bateko departamentuburu, ziklo edo etapako koordinatzaile edo bestelako organoren bateko koordinatzaile lanetan emandako urte bakoitzeko.	0,075	
I.2.2.– Hautetsi gisa, ikastetxeko Eskola Kontseiluko irakasleen ordezkari izan aritutako urte bakoitzeko.	0,050	
I.2.3.– Hautaketa-prozeduretan epaimahaikide gisa parte hartzeagatik. Prozedura bakoitzeko.	0,050	

Oharrak:

I.a.– I.2 azpiatalaren ondorioetarako, Hezkuntza Administrazioek sortu eta sustengatutako ikastetxeen sare publikoan integratuta daudenak jotzen dira ikastetxe publikotzat, eta ez Udalen, Foru Aldundien edo zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen menpe daudenak.

I.b.– Goragoko talde bateko irakasle-kidego bateko hautaketa-prozesuan parte hartzen duten langile funtzionarioen kasuan, sartu nahi den kidegoan karrerako funtzionario emandako urteak baloratzeko orduan, baldintzatzen jarritako urteetatik gora lanean emandako denbora (urteak) baino ez da aintzakotzat hartuko antzinasunari buruzko idatz-zatian.

I.c.– Irakaskuntzako esperientzia-urtetzat hartuko da ikasturte osorako etenik gabeko izendapena edo, bestela, ikasturte berean betetako zerbitzu-aldiak bederatzi hilabetekoak edo gehiagokoak badira.

Hil osokotzat hartuko dira hogeita hamar eguneko zerbitzuak, jarraituak izan zein ez.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
II.- GAINDITUTAKO PRESTAKUNTZA- EDO HOBE-KUNTZA-IKASTAROAK (Gehienez: 3,000 puntu)		
Gainditutako etengabeko ikaskuntza eta hobekuntza-ikastaro bakoitzeko, aukeratzeko den espezialitateari edo eskola-antolamenduari lotutakoak, edota hezkuntzari aplikatutako teknologia berriei, didaktikari, psikopedagogiari edo hezkuntzaren soziologiari lotutakoak, eta hezkuntzaren arloan erabateko eskuduntzak dituzten administrazio publikoek edo unibertsitateek deitutakoak; etengabeko prestakuntza-planeari sartuta dauden jarduerak, hezkuntza-administrazioekin lankidetzan jarduten duten erakundeek antolatutakoak, edo dagokion hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduerak: a) Ez 3 kreditu baino gutxiagokoa. 0,2000 b) Ez 10 kreditu baino gutxiagokoa. 0,5000 Musika-espezialiterako soilik, era berean baloratuko dira musika-kontserbatorioek antolatutako ikastaroak. (*) Azpiatal honen ondorioetarako, bi kreditu baino gutxiagokoak ez diren ikastaroak gehitu daitezke, atal honetan finkatzen diren eskakizunak betetzen badituzte. Horretarako, aipatutako metatzea gutxienez bi kredituko eta hiru baino gutxiagokoak diren ikastaroak gehituta egingo da, eta metatze horren emaitza dagokion azpiatalera eramango da.		Dagokion organismoak edo ikastetxeak emandako ziurtagiria, kredituen edo ikastaroak irauten duen ordu kopurua berariaz jasotzen duena. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da atal honetan puntuaziorik lortuko. Etengabeko prestakuntza-planaren barruan dauden edo hezkuntza-administrazioak onetsita dauden jardueren dagokienez, berariaz jaso behar da jarduerak aipatutako planaren barruan daudela edo hezkuntza-administrazioak onetsita daudela. Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako ikastaroak ofizioz zenbatuko dira, baita Sail horren etengabeko prestakuntzako planaren bildutako edo berak aitortutako jarduerak, salbu eta Eima eta Nolegaren jarduerak; azken hauetan, interesatuak alegatu edo ziurtatu behar du jarduerak horiek egin dituela.

Oharrak:

II.a.- Titulu akademiko, Masterra, doktoretza edo gradu ondoko beste titulazio bat lortzea helburu duten ikastaro edo irakasgai horiek ez dira inoiz ere baloratuko. Halaber, Espezializazio Didaktikoaren titulua edo Irakasteko Gaitasun Ziurtagiria lortzea helburu duten ikastaro edo jarduerak ez dira ere baloratuko.

II.b.- II. atalaren balorazioaren ondorioetarako, kontuan hartu behar da kredituen eta orduen arteko baliokidetasuna, 1992ko azaroaren 26ko Aginduak jasotzen duen bezala; agindu horren bidez, irakasleen etengabeko prestakuntzako jardueren deialdia, onarpena, egiaztatzea eta erregistroa erregulatzen dira, eta ikerketa-jardueren eta unibertsitateko tituluen baliokidetzak ezartzen da (1992ko abenduaren 10eko EAOa).

Haren hamargarren artikuluan adierazten den bezala, «Etengabeko prestakuntzako jardueren balorazioa prestakuntza-kredituetan adieraziko da, irizpide hauei jarraiki:

1.- Ikastaro eta mintegien kasuan, prestakuntza-kreditu bat prestakuntzan egindako lan errealean zortzi orduren baliokidea izango da, gutxienez, eta hamabiren baliokidea, gehienez (...).

2.– Ikastaro eta mintegiei dagozkien kreditu-kopurua haiek garatzeko eta gainditzeko behar den denbora kalkulata finkatuko da, ondoko taulari jarraiki:

Lan-orduak:

Zortzitik hamabi ordura. Kredituak: 1.

Hamahirutik hamazazpi ordura. Kredituak: 1,5.

Hemezortzitik hogeita bi ordura. Kredituak: 2.

Hogeita hirutik hogeita zazpi ordura. Kredituak: 2,5.

Hogeita zortzitik hogeita hamabi ordura. Kredituak: 3.

Eta modu berean kalkulatuta hortik aurrerakoak».

II.c.– II. atalean, ez dira sartzen berriztapen-proiektuak eta, beraz, ez da zilegi horiek baloratzea.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– MEREZIMENDU AKADEMIKOAK ETA BESTELAKO MEREZIMENDUAK (Gehienez: 3,000 puntu)		
III.1.– MEREZIMENDU AKADEMIKOAK (Gehienez: 1,500 puntu)		
III.1.1.– Eskatu eta kidegoan sartzeko alegatu den tituluari dagokion espediente akademikoa, baldin eta alegatutako titulua bat badator, oro har, kidegoan sartzeko eskatzen den titulazio-mailarekin (Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto, A-1 azpitaldeko irakasle-kidegoetarako; edo Unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko, A-2 azpitaldeko irakasle-kidegoetarako) Espediente akademikoaren batez besteko nota honela baloratuko da: – 6ra arte. – 6,01etik 7,50era arte. – 7,51tik 10era arte.	0,500 0,600 0,700	Titulazioan lortutako batez besteko nota adierazten duen ziurtagiri akademiko pertsonal originala edo haren fotokopia konpultsatua. Bestela, alegatutako titulua lortzeko behar diren ikasgai eta ikastaro guztietan lortutako puntuazioak akreditatu behar ditu.
III.1.2.– Graduatu ondokoak, Doktoregoa eta aparteko sariak: III.1.2.1.– Ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), Master Titulu Ofiziala (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua eta urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua), ikerketarako nahikotasuna edo baliokidea den beste edozein agiri izateagatik, baldin eta ez badira irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bete beharreko baldintza. III.1.2.2.– Doktore titulua izateagatik. III.1.2.3.– Doktoregoan aparteko titulua ateratzeagatik.	0,500 0,500 0,250	Dagokion ziurtagiriaren edo tituluaren fotokopia konpultsatua, edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Doktore tituluaren ziurtagiri akademikoa edo fotokopia konpultsatua edo, hala bada, tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa). Hori ziurtatzeko agiria.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– MEREZIMENDU AKADEMIKOAK ETA BESTELAKO MEREZIMENDUAK (Gehienez: 3,000 puntu)		
III.1.– MEREZIMENDU AKADEMIKOAK (Gehienez: 1,500 puntu)		
III.1.3.– Beste unibertsitate-titulazio ofizial batzuk (kidegoan sartzeko baldintza moduan ez badira alegatu). III.1.3.1.– Lehen zikloko titulazioak: Diplomatura, Ingeniaritza Tekniko, Arkitektura Tekniko edo legez horien baliokidetzat jotako titulu bakoitzeko, eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritzaren baten lehen zikloari dagozkion ikasketengatik. A-1 azpitaldeko kidegorako izangaien kasuan, ez dira idatz-zati honen bidez baloratuko inondik ere izangaiak lehenengo lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua lortzeko gainditu behar izan dituen ezaugarri horietako titulu edo ikasketarik. III.1.3.2.– Bigarren zikloko titulazioak: Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturaren bigarren zikloari dagozkion ikasketengatik, edo legez, ondorio guztietarako, horien baliokidetzat jotako titulu bakoitzeko. A-1 azpitaldeko kidegorako izangaien kasuan, ez dira atal honen bidez baloratuko inondik ere izangaiak lehenengo lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua lortzeko gainditu behar izan dituen (lehenengo zikloa, bigarren zikloa edo, dagokionean, heziketa osagarriak) titulu edo ikasketarik.	0,500 0,500	Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren eta meritu moduan aurkeztutako en foto-kopia konpultsatua edo, dagokionean, emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa). Halaber, adierazitako titulu bakoitzaren ziurtagiri akademikoko pertsonala gehitu behar da. Lehenengo zikloari dagozkion ikasketen kasuan, lehenengo hiru ikasturteetako ikasgai guztiak gainditu izana akreditatzen duen ziurtagiri akademikoa eman behar da. Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren eta meritu moduan aurkeztutako en foto-kopia konpultsatua edo, dagokionean, emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa).

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– MEREZIMENDU AKADEMIKOAK ETA BESTELAKO MEREZIMENDUAK (Gehienez: 3,000 puntu)		
III.1.– MEREZIMENDU AKADEMIKOAK (Gehienez: 1,500 puntu)		
III.1.4.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren titulazioak: Hizkuntza Eskola Ofizialek, Musika Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko irakaskuntzen titulazioak, baita Berariazko Lanbide Heziketarenak ere, kidegoan sartzeko baldintza gisa alegatu ez badira edo alegatutako titulua eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira, jarraian esaten den eran baloratuko dira: a) Musika- edo dantza-titulu profesionaleko. b) HEOko maila aurreratuaren ziurtagiriko edo horren baliokideko. c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Teknikari tituluko. d) Lanbide Heziketako Goi Teknikari tituluko. e) Goi-mailako Kirol Teknikari tituluko.	0,250 0,250 0,100 0,100 0,100	Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren eta meritua moduan aurkeztutako en foto-kopia konpultsatua edo, dagokionean, emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko EAOa).

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– MEREZIMENDU AKADEMIKOAK ETA BESTELAKO MEREZIMENDUAK (Gehienez: 3,000 puntu)		
III.2.– ARGITALPENAK, HEZKUNTZA-PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA ETA ARTE-MEREZIMENDUAK (Gehienez: 1,500 puntu)		
III.2.1.– Izaera didaktiko edo zientifikoko argitalpenengatik, baldin eta nahi den espezialitatearekin zerikusirik badute. Egilearengatik. Egilekide edo egile-taldearengatik. Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuak xedatutakoari jarraiki, ISBN zenbakia behar duten eta hura ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, ezta egilea argitaratzailea den argitalpenak ere.	0,250 0,125	Argitalpenetako aleak. Euskarri berezietan argitaratutako materialei dagokienez, hala nola, bideoak, CD-ROM, etab., argitalpen horiekin batera joan daitezkeen dokumentu inprimatuak aurkeztu beharko dira (karatulak, helburuak eta edukiak azaltzen dituzten liburrak, inprimaketak, etab.). Formatu elektronikoan besterik ematen ez diren argitalpenen kasuan, txosten ofiziala aurkeztuko da, eta bertan organismo jaulkitzaileak ziurtatuko du argitalpena datubase bibliografikoan azaltzen dela. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, aldizkaria, liburukia, urtea eta hasierako eta bukaerako orria.
III.2.2.– Espezialitatearekin zerikusia duen sari bakoitzeko, nazio-mailako edo nazioarte-mailako erakusketetan zein lehiaketetan eskuratutakoa (Gehienez: 0,250 puntu).	0,125	Saria lortu izanaren ziurtagiria.
III.2.3.– Hezkuntza Administrazioek onartutako berriztapen- eta esperimentazio-proiektuetan parte hartzeagatik edota proiektu horiek koordinatzeagatik, edo Esperimentazio eta Hezkuntza Berriztapeneko zentroetako kide izateagatik. Urte bakoitza.	0,050	Hezkuntza Administrazioako organo eskumendunak emandako ziurtagiria. Dena dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartutako berriztapen- eta esperimentazio-proiektuak ofizioz zenbatuko dira.

Oharrak:

